

614/2021 Foru Agindua, azaroaren 15koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. KAPITULUA	4
XEDAPEN OROKORRAK	4
1. artikulua. Xedea	4
2. artikulua. Helburua eta ondorioak	4
3. artikulua. Ordezkaritzaren irismena eta edukiak	4
4. artikulua. Jakinarazpenen alderdi komunak	5
5. artikulua. Ordezkaritzaren indarraldia	6
6. artikulua. Ordezkaritzan esku hartzen duten pertsonak. Zerga ordezkaria, ordezkaria eta ordezkapen-ahalordea duen ordezkaria	6
II. KAPITULUA	6
ZERGA ORDEZKARIEN ERROLDAREN KUDEAKETA.....	6
7. artikulua. Zerga ordezkariari alta emateko eskaera	7
III. KAPITULUA	7
ORDEZKATUTAKO PERTSONAK EDO ENTITATEAK ORDEZKARITZA EMATEKO BORONDATEA ADIERAZTEA.....	7
8. artikulua. Borondatea adierazteko epea eta moduak	7
9. artikulua. Bitarteko elektronikoen bidez adierazitako borondatea.....	8
10. artikulua. Notariotzako agiri bidez adierazitako borondatea. Sinadura legitimatua edo notario ahalordea	8
11. artikulua. Herritarren arretarako bulegoetara fisikoki bertaratuz adierazitako borondatea	8
12. artikulua. Triangulazioz adierazitako borondatea	9
IV. KAPITULUA	10
INSKRIBATUTAKO ORDEZKARITZA ALDATZEA, ETETEA ETA BAJA EMATEA	10
13. artikulua. Inskribatutako ordezkari aldatzea	10
14. artikulua. Ordezkaritza etetea eta baja ematea	10
V. KAPITULUA	11
ORDEZKARITZA KASU ESPEZIFIKOAK.....	11
15. artikulua. Pertsona edo entitate ez-egoiliarren ordezkari	11
VI. KAPITULUA	11
ORDEZKARITZA PROFESIONALA.....	11
16. artikulua. Kontzeptua	11
17. artikulua. Ordezkaritza profesional moduan inskribatzea	12
17 bis artikulua. Inskripzioaren ondorioak	13
18. artikulua. Enplegatuek edo kolaboratzaileek	14
19. artikulua. Enplegatu edo kolaboratzaileei alta emateko prozedura	14
20. artikulua. Ordezkaritza profesional moduan baja ematea	15
1. xedapen gehigarria. Inskribatutako ordezkari indarraldia.....	15
2. xedapen gehigarria. Errenta eta ondarearen urteko aitortzen aurkezteko zerga ordezkari espezifikoa	15
3. xedapen gehigarria. Zerga alorreko gizarte lankidetzako hitzarmenetan aurreikusitako kasuetarako zerga ordezkari espezifikoa	15
4. xedapen gehigarria. 582/2014 Foru Aginduari erreferentziak	15
5. xedapen gehigarria. Agerraldi bidezko ordezkariak	16
1. xedapen iragankorra. Elkarreragingarritasuna.....	16

Xedapen indargabetzailea.....	16
Azken xedapena.....	16

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduaren 61. artikulua ezartzen duenez, jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoen kasuan, haiek emango dute borondatezko ordezkari. Zerga-arloan jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoen, pertsona juridikoen eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren (aurrerantzean Zergei buruzko Foru Arau Orokorra) 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen diren erakundeen kasuan, pertsona edo erakunde horien ordezkariak eman ahal izango dute borondatezko ordezkari, betiere haien ordezkariaren edukia horretarako aukera ematen badu. Ordezkaritza pertsona juridikoen edo jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoen alde eman ahal izango da.

Era berean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 46. artikuluan 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, ordezkari emandakotzat joko da, bestek beste, Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga-arloko ordezkari-eroldan inskribatuta dagoenean.

Zerga ordezkariaren errolda hori azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak arautzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga arloko ordezkariaren errolda arautzen duenak.

Igarotako urteetan, administrazio elektronikoak urrats handiak eman ditu. 2015. urteaz geroztik, badira zenbait kolektibo administrazioarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzera behartuta daudenak. Harrez gero, asko ugartu da sinadura elektronikoen erabilera. Era berean, denbora tarte horretan hainbat tresna elektroniko kontsolidatu dira, hala nola jakinarazpen elektronikoa edo erregistro elektronikoa. Horri guztiari TicketBAIrekin lotutako zerga betebeharrak berriak gehitu behar dizkiogu, zerga ordezkariaren berriazko egokitzapenak eskatzen dituztenak.

Azaldutako arrazoiak direla eta, beharrezkoa da 582/2014 Foru Agindua aldatzea. Foru Agindu honen aldaketarik esanguratsuenak honako hauek dira:

— Eduki berri bat sortzen da, zeinak ahalmena ematen baitio zerga ordezkariari bere ordezkariaren izenean TicketBAI betebeharrak betetzeko eta horretarako eskura jartzen diren tresna guztiak erabiltzeko (1.a edukia), bai eta betebeharrak horrekin lotutako jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak eskuratzeko ere (1.b edukia).

— Azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduaren 1., 2., 3. eta 4. edukia 2., 3., 4. eta 5. eduki bihurtzen dira, hurrenez hurren.

— Ordezkaritza, gehienez ere, bost urterako emango da, eskaera aurkezten den egunetik aurrera. Lehendik emandako epe luzeagoko edo mugagabeko ordezkariak bere horretan mantentzen dira.

— Ordezkaritzak Gipuzkoataritik baliozkotu ahal izango dira. Baliozkotze hori ordezkariak zein ordezkari-ahalordea duen ordezkariak egin ahal izango dute.

— Arau honen ondorioetarako, ordezkapen-ahalmena duen ordezkari bat hartuko da ordezkatuaren izenean jarduteko gaitasuna duen legezko edo borondatezko ordezkari bat. Izaera hori dagokion dokumentuan jaso beharko da, gehienetan dokumentu publiko batean. Ordezteko ahalmena duen ordezkaria borondatezko ordezkari bat bada, ordezkatuako pertsonak emandako ordezkari-ahalordeak berariaz jaso beharko du ordezkari horrek ahalmena duela hirugarrenei ahalordea emateko. Figura horri ordezkapen-ahalmen esaten zaio. Garrantzitsua da, halaber, ahalordeak ez egotea mugaturik zergak aurkezteko zenbatekoetan; izan ere, printzipioz ez dakigu ordezkatuak ordaindu beharreko kuoten zenbatekoa.

— Ordezkapen-ahalordea duen ordezkari bat zerga-ordezkari gisa inskriba daiteke zerga-ordezkaritzaren erroldan. Hala ere, nahikoa botere duen ordezkariak bakarrik eman edo alda ditzake zerga-ordezkaritzak bere ordezkatuaren izenean.

— Triangulazio sistemari eusten zaio, berrikuntza hauekin:

1. Zerga ordezkariak 001 edo 001-P dokumentu digitalizatua aurkeztu behar du Gipuzkoataritik, behar bezala sinatuta. Dokumentu hori ordezkatuak edo, kasua bada, ordezkapen-ahalordea duen haren ordezkariak sinatu behar du.

2. Ordezkapen-ahalordea duen ordezkaria triangulazio sisteman sartuko da. Kasu horietan, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariaren zerga egoitzara gutun bat bidaliko da baliozkotzeko kodea barruan duela. Horretarako, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak Espainiako estatuan eduki behar du egoitza, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko zergadunen erroldan alta emanda egon behar du. Triangulazioa ez da aplikatuko ordezkariaren esku hartzen duten alderdietako edozeinek bitarteko elektronikoak erabiltzen baditu departamentuarekiko harremanetan.

Aurreko foru aginduaren ezaugarri nagusiak mantentzen dira, hau da:

— Tributuen alorrera mugatzen da. Ogasun eta Finantza Departamentuaren zergaz besteko gaitan jarduteko, ezinbestekoa izango da ordezkariak Foru Aldundiko Borondatezko Ordezkarien Errolda Korporatiboan inskribatzea.

— Alta emateko prozedura zerga ordezkariak abiatu behar du beti, bitarteko elektronikoak erabilita.

— Ordezkatuak Foru Aldundiak onartutako sinadura elektronikoa aurreratu bat badu, Gipuzkoatariaren bidez baliozkotu ahal izango du bere zerga ordezkariak aurkeztutako ordezkariak eskaera. Horrela, prozedura guztia bitarteko elektronikoaren bidez egin ahal izango da, dokumentaziorik aurkeztu behar izan gabe.

— Nahikoa da esku hartzen duten pertsonak identifikatzea beren izen eta nortasun agiriekin edo agiri baliokideekin. Ordezkaritza harremanean esku hartzen duten pertsonen gainerako datuak Ogasun eta Finantza Departamentuaren zergadunen datu baseetan daudenak izango dira.

— Aurreinskripzioak ez baditu betetzen eskatutako baldintza guztiak, gabeziak jakinaraziko dira eta inskripzioa ukatu egingo da. Interesdunak beti izango du irekita prozedura ordezkariak berriro eskatzeko.

— Zerga arloko ordezkariak ondorioak izateko, ezinbesteko baldintza izango da bi aldeak Ogasun eta Finantza Departamentuko datu baseetan agertzea.

— Gipuzkoatarien dagoen aplikazioak 001 edo 001-P ordezkari-tza eskaera dokumentua sortuko du, hautatutako eduki eta indarraldiarekin, eta ordezkariak eta ordezkatuak sinatu beharko dute, edo, hala badagokio, ordezkapen-ahalorea duen haren ordezkariak.

Honenbestez, hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

1. Foru agindu honen xedea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzea da. Arautze horretan sartzen dira bai inskribatzeko prozedura eta bai haren Kudeaketa eta funtzionamendua.
2. Errolda hau ez da erregistro publiko bat. Interesdunek ordezkatu zein ordezkari gisa agertzen diren ordezkari-tzen egoera ezagutzeko baino ezin izango dute jo erregistrora.

2. artikulua. Helburua eta ondorioak.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean hirugarren pertsonen izenean egiten diren zerga arloko jarduketetan ordezkari-tza frogatzea du helburu zerga ordezkarien erroldan inskribatzeak.
2. Errolda horretan inskribatzea borondatezkoa da, pertsona eta entitate ez-egoiliarrentzat 15. artikuluan xedatutakoan salbu.
3. Behar bezala inskribatutako ordezkari-tzak indarrean egongo dira horiek aldatu arte edo erroldan baja eman arte. Hortaz, ordezkari-tza horretaz baliatuta egindako jarduketa guztiak baliodunak eta eraginkorrak izango dira.
4. Errolda honetan inskribatutako ordezkari-tzaren eraginkortasunean eta balioan eragin dezakeen gorabeherarik gertatuz gero, bai ordezkatuak eta bai haren zerga ordezkariak horren berri eman beharko diote Ogasun eta Finantza Departamentuari. Hori guztia Ogasun eta Finantza Departamentuak ofizioz egin ditzakeen jarduketak alde batera utzi gabe.

3. artikulua. Ordezkari-tzaren irismena eta edukiak.

Zerga ordezkari-ek beren ordezkatu- en izenean egin ditzaketen jarduketak mugatuta egongo dira ordezkari-tzaren bidez ahalbidetutako jarduketetara, eduki hauek direla medio:

1. 1. edukia. TicketBAI.

a. 1.a edukia. Eduki honek ahalmena ematen dio zerga ordezkari-ari TicketBAI betebeharra bere ordezkatu-aren izenean betetzeko, bai eta betebehari hori betetzeari begira zergadunen eskura jartzen diren tresna guztiak erabiltzeko ere.

b. 1.b edukia. Eduki honek ahalmena ematen dio zerga ordezkariari TicketBAI betebeharrarekin lotuta ordezkatuari zuzentzen zaizkion jakinarazpen elektronikoak eskuratzeko.

2. 2. edukia. Aitorpenak aurkeztu eta likidatzea eta zerga informazioa eskuratzeko.

Eduki honek ahalmena ematen dio zerga ordezkariari bere ordezkatuaren izenean, 1.a edukian jasotako ahalmenez gain, era guztietako zerga aitorpen eta autolikidazioak, ordainketa gutunak, zerga ziurtagiriak eta beste edozein zerga informazio aurkeztu, likidatu, kontsultatu eta lortzeko.

3. 3. edukia. Obligazioak onartzea eta eskubideak baliatu nahiz haiei uko egitea.

a. Eduki honek ahalmena ematen dio zerga ordezkariari bere ordezkatuaren izenean, 1.a eta 2. edukietan jasotako ahalmenez gain, Zergen Foru Arau Orokorraren III., IV., V., VI. eta VII. tituluetan araututako prozeduretan edozein jarduketa ere egiteko. Adibide gisa, jarduketa hauek aipa daitezke: errekurtsioak edo erreklamazioak jarri, horietan atzera egin, eskubideei uko egin, betebeharrak hartu edo aitortu, bidegabeko ordainketen itzulketak edo errenbolsioak eskatu, eta zerga zorren gerorapenak eta zatikapenak eskatu.

b. Kanpoan geratzen dira Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusian irekitako prozedurak eta jarduketak, horiek 5. edukian jasotzen den ordezkariaren behar baitute.

4. 4. edukia. Ordezkatuari zuzendutako zerga arloko jakinarazpen elektronikoak eskuratzeko, TicketBAI obligazioarekin lotutako jakinarazpenak (1.b edukikoak) barne.

Eduki honetatik kanpo geratzen dira Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiaren aurrean irekitako espedienteengatik, 5. edukian aipatzen diren prozedura eta jarduketetan, sortzen diren jakinarazpenak.

5. 5. edukia. Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiaren aurrean jardutea.

Eduki honek ahalmena ematen dio zerga ordezkariari ikuskapen prozedura eta jarduketetan bere ordezkatuaren izenean jarduteko, Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiaren aurrean. Ikuskapen prozedura eta jarduketa horiek Zergen Foru Arau Orokorrak arautzen ditu eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduan garatuta daude (azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretua).

Eduki honek aukera ematen du ordezkatuari zuzendutako ikuskapen-espedienteen buruzko jakinarazpenak jasotzeko.

4. artikulua. Jakinarazpenen alderdi komunak.

1. 3. artikuluan zehaztutako 1.b, 4 edo 5 edukiak markatuta dituen zerga-ordezkariari egindako jakinarazpen elektronikoek, posta bidezkoek, bertaratze bidez edo zerga-agenteen bidez egindakoek, ordezkatuari egindako jakinarazpenen balio bera izango dute.

2. Jakinarazpen elektronikoak eskura jarri izanaren abisuak ordezkatuaren eta haren zerga ordezkariaren helbide elektronikoetara bidaliko dira. Ordezkari profesionalen kasuan, profesional gisa inskribatzeko unean adierazitako helbide elektronikora bidaliko dira abisuak. Gainerako ordezkarien kasuan, ordezkariaren bakoitzean zehazten den helbidera bidaliko dira.

3. Zerga ordezkariak jakinarazpenaren edukia eskuratzeak jakinarazpena egintzat jotzea dakar. Edukia bai ordezkariak eta bai ordezkatuak eskuratzen badute, jakinarazpen datatzat lehenago gertatutakoa hartuko da.

4. Jakinarazpen elektronikoak jasotzeko aukera edo obligazioa ez da sortzen eduki hau markatuz. Alde batetik, indarrean dagoen araudiak kolektibo jakin batzuk behartzen ditu administrazioarekin harreman telematikoak izatera. Bestetik, behartuta ez dauden pertsonak beren borondatez aukera dezakete Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan bitarteko telematikoak erabiltzea.

5. artikulua. Ordezkaritzaren indarraldia.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien erroldan inskribatutako ordezkariak emandakotzat joko dira erroldan alta ematen zaien egunean.

2. Ordezkaritza 5 urterako emango da gehienez, eskaera egiten den egunetik aurrera kontatuta.

3. Foru agindu hau onartu aurretik emandako ordezkarietaz 5 urtetik gorako indarraldia badute, eutsi egin diote beren indarraldiari. Ordezkaritza horietan aldaketaren bat gertatzeak indarraldi hori 5 urteko gehieneko indarraldira egokitzea dakar.

6. artikulua. Ordezkaritzan esku hartzen duten pertsonak. Zerga ordezkaria, ordezkaria eta ordezkapen-ahalordea duen ordezkaria.

Foru agindu honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

1. Zerga ordezkaria: borondatezko ordezkaria, aurreko 3. artikuluan aurreikusitako edukietako bat duena. Pertsona fisiko bat zein entitate bat izan daiteke. Berak hasten du alta emateko prozedura, bitarteko elektronikoen bidez. Ogasun eta Finantza Departamentuaren zergadunen datu baseetan inskribatuta agertu behar du.

2. Ordezkaria: pertsona fisikoa edo entitatea. Pertsona honek baimena ematen dio zerga ordezkariari haren izenean jarduteko. Ogasun eta Finantza Departamentuaren zergadunen datu baseetan inskribatuta agertu behar du.

3. Ordezkapen-ahalordea duen ordezkaria: legezko ordezkaria edo borondatezko ordezkaria, ordezkariaren izenean jarduteko eta zerga ordezkari bati ahalordea emateko gaitasuna duen pertsona da.

Ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak ez du Ogasun eta Finantza Departamentuko zergadunen datu-basean inskribatuta egon behar, 12. artikuluan jasotakoari kalterik egin gabe.

Nahitaezkoa da ordezkariaren eta ordezkapen-ahalordea duen ordezkariaren arteko harremana dagokion dokumentuan jasotzea, gehienetan dokumentu publiko batean. Dokumentu horretan jasoko da ordezkariak ordezkari honi ordezkatzeko ahala ematen diola hirugarren pertsona bati, kasu honetan, zerga-ordezkariari, ahalordea emateko. Administrazioak harreman hori egiaztatu ondoren, ordezkapen-ahalordea duten ordezkariak ordezkariaren izenean baimendu dezakete ordezkariari.

II. KAPITULUA

Zerga ordezkarien erroldaren kudeaketa

7. artikulua. Zerga ordezkariari alta emateko eskaera.

1. Zerga ordezkariak telematikoki hasiko du zerga ordezkariaren baten alta. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko «Gipuzkoataria» on-line zerbitzuen atarian dagoen aplikazio informatikoa erabili behar du. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak sinadura elektronikorako onartzen dituen sistemetako bat erabili behar du.

2. Zerga ordezkariak, ordezkariari alta emateko prozesuan, alderdien identifikazio datuak sartu edo baliozkotuko ditu, eta ordezkariaren edukiak eta indarraldia markatuko ditu. Urrats horiek egin ondoren, zerga ordezkariak ordezkariaren korporatiboa eskatu ahal izango du aplikazio beretik. Ordezkariaren horrek balio du Gipuzkoako Foru Aldundiko gainerako departamentuen aurrean ordezkariaren izenean jarduteko. Ordezkari profesionalak ez dute aukera hori.

Dokumentazio aurkeztu behar denean, zerga ordezkariak ordezkariaren ordezkariaren erroldako aplikazio informatikoaren bidez aurkeztuko du. Zerga ordezkariak eskaera sinatuko du, eta, hala badagokio, baita erantsitako dokumentazioa ere, eta horretarako, eskaera hasteko erabili den sinadura elektronikoko bera erabiliko du.

3. Ordezkariak edo ordezkariaren-ahalordea duen haren ordezkariak adostasuna eman behar dio ordezkariaren edukiari, foru agindu honen III. kapituluaren jasotzen diren moduetako bat erabiliz.

4. Prozesua amaituko da zerga ordezkariari ordezkariaren alta edo errefusa jakinarazten zaionean.

5. Ordezkariari alta emango zaio baldintza hauek bete badira:

— Ordezkariaren emateko eskaera behar bezala betetzea.

— Dokumentazio aurkeztea beharrezkoa den kasuetan, aurkeztutako dokumentazio hori Ogasun eta Finantza Departamentuak onartzea.

— Ordezkariaren edo ordezkariaren-ahalordea duen ordezkariaren adostasuna jasota egotea.

6. Aurreko apartatuko baldintzak betetzen ez badira, ordezkariaren errefusatu egingo da. Zerga ordezkariak mezu elektronikoko bat jasoko du eskaera zergatik errefusatu den bertan azalduta. Posta elektronikokoan adierazitako akatsak zuzenduz gero, zerga ordezkariak berriro eskatu dezake ordezkariaren alta.

7. Ogasun eta Finantza Departamentuak ordezkariaren emateko eskaeraren edukia eta/edo indarraldia mugatu dezake, aurkeztutako dokumentaziotik hala ondorioztatzen bada.

III. KAPITULUA

Ordezkariaren pertsonak edo entitateak ordezkariaren emateko borondatea adieraztea

8. artikulua. Borondatea adierazteko epea eta moduak.

1. Ordezkariak 30 egun natural ditu ordezkariaren baliozkotzeko. 7. artikuluan aurreikusitako alta eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea.

2. Epe horretan ordezkatuak ez badu adostasunik ematen, alta eskaera iraungitzat joko da eta, hala badagokio, inskripzio prozedura berriro hasi beharko da.

3. Ordezkatuak edo, hala badagokio, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak, 9., 10., 11. edo 12. artikuluetan ezarritako moduetako bat erabiliz adierazi behar du ordezkaritza emateko borondatea duela.

9. artikulua. Bitarteko elektronikoen bidez adierazitako borondatea.

1. Ordezkaturia. Ordezkatuak Gipuzkoatarian kokatuta dagoen aplikaziotik baliozkotu dezake ordezkaritza, departamentu honetan sinadura elektronikorako onartutako dauden sistemetako bat erabilia.

2. Ordezkapen-ahalordea duen ordezkaria. Ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak jarraian zehazten den eran baliozkotu dezake ordezkaritza:

a. Gipuzkoako Foru Aldundiko Legezko Ordezkarien erroldan inskribatuta dagoen legezko ordezkaria. Bere sinadura elektronikorekin baliozkotu dezake ordezkaritza, Gipuzkoatarian dagoen zerga ordezkarien erroldako aplikazioa erabiliz. Ez da beharrezkoa dokumentaziorik aurkeztea.

b. Inskribatu gabeko legezko ordezkaria edo ordezkatuaren izenean jarduteko ahalmen nahikoa duen beste ordezkari bat. Zerga ordezkariak ordezkapen-ahalordea duen ordezkariaren ahalordetzea frogatzen duen dokumentua aurkeztu behar du ordezkarien erroldako aplikazioaren bitartez. Departamentuak dokumentu hori baliozkotuko du, eta, ondoren, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak ordezkaritza baliozkotuko du bere sinadura elektronikorekin, ordezkarien erroldako aplikazioa erabilia.

10. artikulua. Notariotzako agiri bidez adierazitako borondatea. Sinadura legitimatua edo notario ahalordea.

1. Sinadura legitimatua. Ordezkaritzari alta emateko eskaera behin egin ondoren, dokumentua inprimatu behar da, eta 6. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aipatutako pertsonetako edozeinek sinatu behar du, fede-emaila publiko baten aurrean. Notarioak legitimatutako sinadura duten dokumentu pribatuek notario ahalorde baten balio bera izango dute ondorio horietarako, baldin eta dokumentu horren edukia bat badator foru agindu honetan ezarritako edukiekin, indarraldiarekin eta, hala badagokio, kasu espezifikoekin.

2. Notario ahalordea. Ordezkatuak zerga ordezkari bat izendatu dezake notario ahalorde bat erabilia. Notario ahalordearen edukiak bat etorri behar du foru agindu honetan ezarritako edukiekin, indarraldiarekin eta, hala badagokio, kasu espezifikoekin.

11. artikulua. Herritarren arretarako bulegoetara fisikoki bertaratuz adierazitako borondatea.

1. Ordezkatuak Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetako batera jo dezake, bertan bere burua identifikatu, eta departamentuko langileek emango dioten ordezkaritza dokumentua sinatu.

2. Ordezkapen-ahalorea duten ordezkariak ere Departamentuko herritarren arretarako edozein bulegotan sinatu dezakete ordezkaritza agiria. Kasu horretan, Departamentuak onartua izango du, aldeztu aurretik, ordezkatuaren eta ordezkapen-ahalordea duen ordezkariaren arteko harremana frogatzen duen dokumentazioa.

3. Harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden ordezkatuak eta haren ordezkapen-ahalordea duten ordezkariak ezin izango dute bertaratze fisikoaren sistema erabili beren borondatea adierazteko. Muga hori ez zaie aplikatuko 12.2 artikuluan zerrendatutako pertsona edo entitateei.

12. artikulua. Triangulazioz adierazitako borondatea.

1. Triangulazio sistema erabilgarria izango da, soil-soilik, ordezkatuaren edo, kasua bada, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariaren egoitza Espainiako Estatuan dagoenean eta Ogasun eta Finantza Departamentuko zergadunen datu basean alta emanda dagoenean.

2. 6.2 edo 6.3 artikuluetan aipatzen diren ordezkatuak eta ordezkapen-ahalordea duten ordezkariak, nahitaez bitarteko elektronikoak erabili behar badituzte, ezin izango dute triangulazio sistema erabili ordezkari-tza baliozkotzeko.

Erregela horren salbuespen gisa, triangulazioa egin ahal izango da kasu hauetan:

a. Ondasun erkidegoak (identifikazio fiskaleko zenbakiaren –IFZren– hasieran «E» letra duten entitateak), jabetza horizontaleko araubidean dauden jabe erkidegoak (IFZren hasieran «H» letra dutenak), sozietate zibilak (IFZren hasiera «J» letra dutenak), elkarteak (IFZren hasieran «G» letra dutenak) eta erakunde erlijiosoak (IFZren hasieran «R» letra dutenak), baldin eta 6. artikuluko 3. apartatuan aipatzen den pertsona ez badago behartuta bitarteko elektronikoak erabiltzera.

b. Enpresa sortu berriak, 036 eredia aurkeztu eta 3 hilabeteko epean, baldin eta 6. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen den pertsona ez badago behartuta bitarteko elektronikoak erabiltzera.

c. Ogasuneko zuzendari nagusiak ebazpen bidez baimendutako beste pertsona edo entitate batzuk.

3. Honela funtzionatzen du triangulazio sistemak:

a. Zerga ordezkariak 001 edo 001-P dokumentu digitalizatua aurkeztu behar du Gipuzkoatarian, ordezkatuak edo, kasua bada, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak eskuz sinatu ondoren. Zerga ordezkariak, eskuz sinatutako jatorrizko dokumentua gorde behar du. Dokumentazio horrek Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskura egongo behar du beti, eta, hura eskatuz gero, ezin izango da atzerapenik egon haren aurkezpenean.

b. Ogasun eta Finantza Departamentuak zerga ordezkariak aurkeztutako dokumentazioa onartu ondoren, ordezkari-tza inskribatzeko eskaeraren kopia bidaliko dio ordezkatuari, edo, hala badagokio, ordezkapen-ahalordea ordezkariari, erreferentzia kode batekin batera. Bidalketa hori jakinarazpen bidez egingo da, hartu izanaren agiriarekin, ordezkatuaren zerga egoitzara edo, kasua bada, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariarenera, eta behin bakarrik. Jakinarazpena emaitzarik gabea bada, ez da saiaturik berriro egiten eta ez da argitaratuko.

Ordezkatuak edo ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak 3. artikuluko 4. edukiarekin alta emandako zerga ordezkari bat baldin badute, triangulazio kodearen posta bidezko jakinarazpenak ez du eramango kode elektroniko baliokiderik.

c. Ordezkaritzarekin ados egonez gero, ordezkatuak edo, kasua bada, ordezkapen-ahalardea duen ordezkariek erreferentziazko kodea komunikatuko dio zerga ordezkarieri.

d. Ordezkaritza aktibatuko da zerga ordezkariek erreferentziazko kodea sartzen duenean Gipuzkoatariko aplikazio informatikoan.

e. Ordezkaritza aktibatzeko epea 8. artikulua 1. atalean xedatutakoa da. Epe hori igarotzen bada erreferentziazko kodea sartu gabe, triangulazio sistema ezingo da berriro erabili, harik eta iraungitako alta edo aldaketa eskaeratik urtebete igaro arte.

IV. KAPITULUA

Inskribatutako ordezkaritza aldatzea, etetea eta baja ematea

13. artikulua. Inskribatutako ordezkaritza aldatzea.

1. Inskribatutako ordezkaritzan zeinahi aldaketa egiteko, foru agindu honetan altak emateko aurreikusitako prozedurari jarraitu beharko zaio.

2. Inskribatutako ordezkaritzetan egiten diren aldaketek erroldan inskribatzen direnetik sortuko dituzte ondorioak.

14. artikulua. Ordezkaritza etetea eta baja ematea.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak edozein ordezkaritza eten edo baja eman ahal izango du, modu arrazoituan.

2.¹ Hala ere, ordezkaritzari baja eman ahal izango zaio, arrazoitu beharrik gabe, honako kasu hauetan:

a) Haren indarraldia amaitzeagatik.

b) Ordezkaritza bost urteko epean ez erabiltzeagatik.

c) Ordezkatuak edo ordezkapen ahalordea duen ordezkariek egindako ordezkaritza errebokatzeagatik.

d) Zerga ordezkariek ordezkaritzari uko egiteagatik. Kasu horretan, zerga ordezkariek ordezkatuari edo, hala badagokio, ordezkapen ahalordea duen ordezkarieri jakinarazi beharko dio uko egin diola. Departamentuak behin ukoa aztertu ondoren, baja emango zaio ordezkaritzari.

e) Ordezkaritza profesionalaren izaera galtzeagatik..

3. Baja eskaerak interesdunak aurkezten dituztenean, Departamentuak onartu ondoren ondorioak sortuko ditu.

¹ Apartatu hau ekainaren 24ko 286/2023 Foru Aginduaren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua, aldatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena. Aldaketa 2023ko ekainaren 30ean sartzen da indarrean.

4. Ordezkaritzari baja emateak ez du berekin ekarriko baja inskribatu aurretik edo inskripzioaren egun berean ordezkariekin egindako jarduketak deuseztatzea, eta une horretara arte zerga ordezkariekin egindako jarduketa guztiak baliodunak izango dira.

V. KAPITULUA

Ordezkaritza kasu espezifikoak

15. artikulua. Pertsona edo entitate ez-egoiliarren ordezkaritza.

1. Zergen Foru Arau Orokorraren 47. artikuluan edo aplikagarria den gainerako zerga araudian xedatutakoaren arabera, pertsona edo entitate ez-egoiliarrek zerga ordezkaritza bat izendatu behar badute Zerga Administrazioarekin dituzten harremanetarako, ordezkaritza hori zerga ordezkarien erroldan inskribatuko da.

2. Ordezkaritza horien inskripzioa foru agindu honetan aurreikusitako eran izapidetuko da, berezitasun hauek kontuan hartuta:

a. Espresuki jaso behar da Zergen Foru Arau Orokorraren 47. artikulua onorioetarako formalizatzen dela, propio eraturako laukia markatuta.

b. Ordezkaritzak foru agindu honen 3. artikuluan aipatzen diren eduki guztiak hartuko ditu.

c. Ordezkatuak ordezkaritza emateko borondatea adierazi beharko du, foru agindu honen 9., 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako moduetako edozeinetan. Triangulazio-sistema salbuesten da, kasu horietan ezin baita aplikatu.

d. Atzerriko agintariak emandako dokumentu publikoak behar bezala legeztatuta eta, hala badagokio, euskarara edo gaztelaniara itzulita aurkeztuko dira.

e. Baja ordezkatuak eskatzen badu, baja eraginkorra izan dadin beste zerga ordezkaritza bat izendatu beharko du, edo, bestela, ordezkaritza ez dela derrigorrezkoa frogatu beharko du.

VI. KAPITULUA

Ordezkaritza profesionala

16. artikulua. Kontzeptua.

1. Profesionaltzat hartuko dira zerga arloko Kudeaketa zerbitzuak ohikotasunez egiten dituzten pertsona edo entitate guztiak, baldin eta alta emanda ageri badira apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsita dagoen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategineko honako talde, epigrafe edo multzoetan: I. Eranskinen Lehen Sekzioaren 811., 812., 834., 841., 842. eta 847. taldeetan edo 849.7 epigrafean, edo Eranskin horretako Bigarren Sekzioaren 721., 722., 723., 726 eta 798. taldeetan edo 73. eta 74. multzoetan.

Gipuzkoatik kanpoko pertsona edo entitateen kasuan, aplikagarri zaien araudian baliokideak diren epigrafeak onartuko dira.

2. Kontrako frogarik ez dagoen artean, ordezkari profesionalak izango dira bi pertsona juridiko edo gehiago ordezkatzeko dituzten pertsonak, haiekin harreman laboral edo sozietariorik ez dutenean, bai eta bost pertsona fisiko edo gehiago ordezkatzeko dituztenak ere, haiekin duten ahaidetasun harremana ez bada odolkidetasunezkoa, laugarren graduraino, edo ezkontza bidezkoa, bigarren graduraino. Arrazoiketarik edo arrazoiketa nahikorik ez badago, ordezkari guztien baja izapidetuko da ofizioz. Presuntzio hori ez zaie aplikatuko soilik TicketBAI edukietara mugatzen diren ordezkarietara.

3. Zerga Kudeaketako profesionalak bitarteko elektronikoa erabili behar dituzte Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartua duen sinadura elektronikoa aurreratuko ziurtagiria erabiliko dute.

4.² Profesional gisa alta emateko eskaeran pertsona edo entitate profesionalak edo domeinu bereko beste edozeinek adierazitako helbide elektronikoa ezin izango da bat etorri beste ezein zergadunen harremanetarako helbide elektronikoekin. Bat etorri gero, Departamentuak baja eman ahal izango die ordezkarietako pertsonen helbide elektronikoei.

17. artikulua. Ordezkari profesional moduan inskribatzea.

1. Zerga ordezkarien erroldan ordezkari profesional moduan inskribatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a. 16. artikuluko 1. atalean aipatu diren JEZaren epigrafeetako batean alta emanda egotea.

b. Beharrezkoa da idatziz konprometitzea profesional moduan egingo dituen jarduketetan zerga Kudeaketako profesionalak erantzukizunez jardungo duela zerga arloko Kudeaketa eta aholkularitza lanetan Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean.

c. Nortasun juridikoa duten entitateen kasuan, legezko ordezkari bat eduki behar dute behar bezala erregistratuta legezko ordezkarien erroldan; eta nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan, berriz, zerga alorreko ordezkari bat eduki behar dute erregistratuta zerga ordezkarien erroldan, 3. artikuluko 1etik 5era bitarteko edukiak markatuta.

d. Zergadun gipuzkoarren kasuan, profesionalak badira, posta elektronikoa bat izatea zentsu aitortuarekin.

2. Inskribatzeko prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

a. Inskribazioa bitarteko elektronikoen bidez egingo da, Gipuzkoatarian dagoen aplikazioa erabiliz, eta profesionala sinadura elektronikoa aurreratuko ziurtagiriaren bidez aurrez identifikatuta.

b. Inskribatzeko prozeduran, helbide elektronikoa bat eta telefono bat adierazi behar dituzte profesionalak. Harremanetarako datu horiek ez dute zentsu izaerarik izango, eta

² Apartatu hau ekainaren 24ko 286/2023 Foru Aginduaren artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua aldatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena. Aldaketa 2023ko ekainaren 30ean sartzen da indarrean.

Ogasun eta Finantza Departamentuak pertsona edo entitate horrek zerga Kudeaketako profesional gisa egiten dituen jarduketetan baino ez ditu erabiliko.

c. Gipuzkoako jarduera ekonomiko gainezko zergan alta emanda ez dauden profesionalak JEZaren bidezko epigrafean alta eman izanaren ziurtagiriaren kopia digitalizatua aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horrek hiru hilabeteko antzintasuna izan beharko du gehienez. Ogasun eta Finantza Departamentuak edozein unetan eskatu ahal izango du ziurtagiri eguneratu bat bidaltzeko.

d.³ Zerga kudeaketako ordezkari profesionalak ez badu egiten urtebetean altako ordezkari bat edo jarduketaren bat bezeroen izenean, Ogasun eta Finantza Departamentuak baja eman ahal izango dio erroldan. Ordezkari horrek edozein unetan eskatu ahal izango du berriro ematea alta profesional moduan.

17 bis artikulua. Inskripzioaren ondorioak.⁴

Foru agindu honen 3. artikuluan jasotzen diren jarduketa ahalmenez gain, zerga ordezkarien erroldan profesional gisa inskribatzeak ahalmena ematen die profesionali honako jarduketa hauek egiteko:

1. Langileak edo kolaboratzaileak izendatzea hurrengo 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Errenta eta ondare zergen urteko aitorpenak aurkeztea (109 eta 714 ereduak) ordezkatuaren informazio fiskala eskuratuta, martxoaren 12ko 274/2013 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat (274/2012 Foru Agindua, Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean errenta eta ondarearen urteko aitorpenak aurkezteko berariazko ordezkari bat onartzen duena).

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eta Ogasun eta Finantza Departamentuan webgunean zerrendatuta dauden zerga aitorpen puntualak, eta eredu periodikoekin lotutako eskaera puntualak aurkeztea «Zergabidea» plataformaren bidez, aldian aldiro errepikatzen diren zerga egitatei buruzkoak ez direnean. Eredu eta eskaera horiek aurkeztu ahal izateko, zerga kudeaketako ordezkari profesionalak zergapekoaren ordezkari izan beharko du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dauden 001-P edo 001-MP ereduaren bidez emandakoa.⁵

001-MP ereduaren bidez ematen den ordezkariak ordezkari hori emateko arrazoi den egintza juridikoarekin lotutako zerga eredu eta eskaera puntualak aurkezteko bakarrik ematen dio ahalmena zerga kudeaketako ordezkari profesionalari. Halaber,

³ Letra hau ekainaren 24ko 286/2023 Foru Aginduaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua aldatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena. Aldaketa 2023ko ekainaren 30ean sartzen da indarrean.

⁴ Artikulu hau ekainaren 24ko 286/2023 Foru Aginduaren artikulua bakarreko lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru aginduak azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua aldatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena. Aldaketa 2023ko ekainaren 30ean sartzen da indarrean.

⁵ Paragrafo hau urtarrilaren 17ko 11/2024 Foru Aginduko artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratu eta biaramunean sartzen da indarrean (2024/01/22ko GAO).

ordezkari profesionalak ordezkaritza eman zitzaien ereduarekin edo eskaerarekin lotutako jakinarazpenak jaso ahal izango ditu.⁶

Beste edozein autolikidazio aurkezteak, ordezkaturako pertsona berarena barne, edo beste edozein jarduketa egiteak, nahiz eta Ogasun eta Finantza Departamentuan hasierako aitorpena aurkeztearen ondorio izan, ordezkaritza berri bat tramitatzea exijituko du.

Zerga kudeaketako profesionalek beren gain hartuko dute 001-MP ereduaren bidez emandako ordezkaritza frogagiriak zaintzeko erantzukizuna. Dokumentazio horrek Ogasun eta Finantza Departamentuaren eskura egongo beharko du beti, eta, eskatuz gero, ez da onartuko berandu aurkeztea.

18. artikulua. Enplegatuak edo kolaboratzaileak.

1. Ordezkari profesional direnei emandako ordezkaritza ordezkari profesional horrek beren enplegatu edo kolaboratzaileei ere emandakotzat hartuko dira.

2. Zerga Kudeaketako ordezkari profesionalak enplegatuak edo kolaboratzaileak gaitu ditzake Gipuzkoatari kokatutako aplikazioaren bitartez. Enplegatu edo kolaboratzaile horiek profesionalaren ordezkaritza indarrean duten pertsona guztien izenean jardun ahal izango dute, haren kargura eta kontura, eta emandako gaikuntzak dituen edukiekin.

3. Gaikuntzak foru agindu honen 3. artikuluan aipatutako edukiak izango ditu, eta horiek ezingo dituzte inolaz ere gainditu ordezkaturako pertsonak edo entitateak emandakoak.

4. Enplegatu edo kolaboratzaileek ordezkaritza eskaerak, aldaketak eta uko egiteak izapidetu ahal izango dituzte profesionalaren izenean.

5. Enplegatuak edo kolaboratzaileak jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoak izan behar dute beti.

6. Ordezkari profesionalak bere gain hartzen du, Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean, enplegatu eta kolaboratzaileak bere ordezkatuaren izenean egindako kudeaketetatik ondorioztatutako erantzukizun guztia.

19. artikulua. Enplegatu edo kolaboratzaileei alta emateko prozedura.

1. Ordezkari profesionalak, bere burua identifikatu ondoren, enplegatuaren edo kolaboratzailearen alta eskatu behar du Gipuzkoatari kokatutako aplikazioaren bitartez. Pertsona hori ez badago Ogasun eta Finantza Departamentuaren datu baseetan, enplegatuaren edo kolaboratzailearen NAN digitalizatua bidali behar du profesionalak. Behin dokumentazioa bidalita, enplegatuak edo kolaboratzaileak, alta sinatzearekin batera, idatzi bat izenpetu behar du ordezkari profesionalaren enplegatu edo kolaboratzaile gisa egingo dituen jarduketetan erantzukizunez jokatzeko konpromisoa adieraziz.

2. Zerga arloko jarduketetan, enplegatuak edo kolaboratzaileak sinadura elektronikoa aurreratuko ziurtagiriarekin jardungo du.

⁶ Paragrafo hau urtarilaren 17ko 11/2024 Foru Aginduko artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak azaroaren 15eko 614/2021 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofiziakena argitaratu eta biaramunean sartzen da indarrean (2024/01/22ko GAO).

20. artikulua. Ordezkarri profesional moduan baja ematea.

1. Ordezkarri profesionalak edozein unetan eskatu dezake baja, ordezkarrien errolda kudeatzeko aplikazio informatikoaren bidez. Baja hori ordezkarrien erroldan inskribatzen den egunetik izango da eraginkorra.

Foru agindu honen 16.1 artikuluan aipatu diren JEZaren epigrafeetan ordezkarri profesionalak ematen duen borondatezko baja interesdunak eskatutako bajatzat joko da. Interesdunak eskatuta egiten diren bajetan, ordezkarri profesionalaren erantzukizuna izango da zirkunstantzia hori bere ordezkatuei jakinaraztea.

2. Ordezkarri profesionalaren bajak haren ordezkaritza guztien baja automatikoa dakar berekin, bai eta baimendutako enplegatu eta kolaboratzaile guztiena ere.

1. xedapen gehigarria. Inskribatutako ordezkaritzen indarraldia.

1. Foru agindu hau indarrean jartzean Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarrien erroldan inskribatuta dauden zerga ordezkaritza guztiak bere horretan mantentzen dira. Ordezkaritza horien edukiak foru agindu honen 3. artikuluan jasotzen diren eduki berrietara egokituko dira:

a. Foru agindu hau onetsi aurretik emandako ordezkaritzek 1. edukia markatua badute, agindu honetan aurreikusitako 1.a. eta 2. edukia izango dute.

b. Foru agindu hau onetsi aurretik emandako ordezkaritzek 2. edukia markatua badute, agindu honetan aurreikusitako 1.a., 2. eta 3. edukia izango dute.

c. Foru agindu hau onetsi aurretik emandako ordezkaritzek 3. edukia markatua badute, agindu honetan aurreikusitako 1.b. eta 4. edukia izango dute.

d. Foru agindu hau onetsi aurretik emandako ordezkaritzek 4. edukia markatua badute, agindu honetan aurreikusitako 5. edukia izango dute.

2. Foru agindu hau indarrean jartzean Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarrien erroldan inskribatu dauden enplegatu edo kolaboratzaileei emandako baimen guztiak bere horretan mantentzen dira. Baimen horien edukiak 3. artikuluan jasotakoetara egokituko dira, aurreko atalean adierazitako arauen arabera.

2. xedapen gehigarria. Errenta eta ondarearen urteko aitorpenak aurkezteko zerga ordezkaritza espezifikoa.

Errenta eta ondarean ordezkaritza emateko 001-RP ereduaren 12ko 274/2013 Foru Aginduan jasota dagoen erregulazioarekin mantentzen da.

3. xedapen gehigarria. Zerga alorreko gizarte lankidetzako hitzarmenetan aurreikusitako kasuetarako zerga ordezkaritza espezifikoa.

Autolikidazioak aurkeztu eta ordaintzeko, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta profesionalen elkargoek eta federazioek sinatu dituzten gizarte lankidetzako hitzarmenak bere horretan mantentzen dira.

4. xedapen gehigarria. 582/2014 Foru Aginduari erreferentziak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga-arloko ordezkari-tza-errolda arautzen duen azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduari egiten zaizkion erreferentziak foru agindu berri horri egindakotzat hartuko dira.

5. xedapen gehigarria. Agerraldi bidezko ordezkari-tzak.

Hasitako zerga-jarduera edo -prozedura orotan, interesdunak ordezkari-tza eman ahal izango du administrazio-organo eskudunaren aurrean agertuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 46.2 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren 61.2.d artikuluan araututakoaren arabera.

1. xedapen iragankorra. Elkarreragingarritasuna.

Ordez-kari profesionala Gipuzkoako zergapekoa ez bada jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kopia digitalizatua bidaltzeko ditun betebeharra, 17. artikuluan 2. paragrafoan aipatzen dena, eta bere enplegatu edo kolaboratzaileen Nortasun Agiri Nazionala bidaltzekoa, horiek Ogasun eta Finantza Departamentuaren datu-baseetan ez badaude, bertan behera geratuko dira Departamentuak datu horietarako sarbidea duen unean, beste administrazio publiko batzuekin lan eginez.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe geratzen da azaroaren 5eko 582/2014 Foru Agindua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkari-en errolda arautzen duena.

Azken xedapena.

Foru agindu hau argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hala ere, jarraian aipatzen diren apartatu eta aldaketek 2022ko urtarrilaren 10etik aurrera izango dituzte ondorioak:

— 9.2.b. artikulua. Inskribatu gabeko lege-zko ordezkariak edo ordezkapen-ahalordea duen beste ordezkari batek ordezkatuaren borondatea bitarteko elektronikoen bidez baliozkotzeko aukera.

— 12.3.a. artikulua. Zerga ordezkariak 001 edo 001-P dokumentu digitalizatua Gipuzkoatarian aurkezteko aukera, ordezkatuak edo, kasua bada, ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak eskuz sinatuta. 2022ko urtarrilaren 10era arte, zerga ordezkari-ek departamentuko arreta bulegoetan aurrez aurre edo, bestela, posta bidez jarraitu beharko dute aurkezten dokumentu hau.

— 12.3.b. artikulua. Triangulazio sistema erabiltzeko aukera ordezkari-tza eskaera ordezkapen-ahalordea duen ordezkariak baliozkotzen duenean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **286/2023 Foru Agindua, ekainaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen baita 614/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena (2023-06-29ko GAO).**
 - Bere artikuluko bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 14. artikuluko 2. apartatua.
 - 16. artikuluko 4. apartatua.
 - 17.2 artikuluko d) letra.
 - 17 bis artikulua gehitzen da.
- **11/2024 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, zeinaren bidez aldatzen baita 614/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena (2024/01/22ko GAO).**

Bere artikuluko bakarrak 17 bis artikuluko 3. apartatuko lehenengo bi paragrafoak aldatzen ditu eta baita 001-MP ereduak